

Naturaldia
jardunaldietan
etorkizunaz
ariko dira ▶ 2



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Asteazkena ▶ 2007-04-25 ▶ V. urtea ▶ 1.143. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

KOLDOBIKA JAUREGI ▶ ESKULTURGILEA

«Herriak obra berea egiten duenean sortzen da benetako artea»

ALKIZA ▶ Eskulturgilearen 'Natura eta errealitatea' erakusketa ikusgai dago Bilboko Guggenheim-en

OINARRIA ▶ «Irakeko inbasioak eragin zidan haserrea dela-eta erabaki nuen gaia jorratzea» ▶ 4



Koldobika Jauregi, Guggenheim museoan. RAUL BOGAJO/ARGAZKI PRESS

LURDES BALANZATEGI ▶ SAHARAR HERRIAREKIN ELKARTASUNA TALDEKO KIDEA

«Jasotzen duten laguntzari esker bizi dira Saharan»

Uda honetan Leitzan Saharako umeak jasotzeko lanean ari da ▶ 7

ALEGIA ▶

Txintzarri Txikikoak, Jakara bidaia

Kontzertua emango dute, gaur abiatuta ▶ 5



INAKI VERGARA

Zeberio «gustura» azaldu da finala irabazita

ELDUAIN ▶ Patxaran Baines Txapelketa eramana du erremontistak; aurkariek «egun txarra» izan zutela aitortu du Elduaingoak ▶ 6

BAL. LEA. OR. XE

TOLOSA **BAILARAKO ESKAINTZARIK ZABALENA**

BATXILERGOA
Teknologia
Natura eta Osasun Zientziak
Gizarte eta Giza Zientziak

ORIXE
Bigarren Hezkuntzako Institutua

943 65 13 87
E-mail: 012980aa@hedurhitza.net www.orixa.net

Aurrematrikula: Babxlergoa: apirilaren 23tik maiatzaren 4ra

NATURALDIA ▶

Petrolioa bukatzerako prestatzen

Lucila Izquierdok eta Antonio Ruiz Elvirak hitzaldia emango dute gaur

IÑIGO TERRADILLOS

Herenegun hasi ziren klima aldaketa ardatz duten Naturaldia jardunaldiak. Lehenengo saioan, Luis Balairon Ruiz meteorologo eta fisikariak klima aldaketaz dakiguna eta ez dakiguna azaldu zuen. Atzoko saioan, berriz, klima aldaketaren kausak zein diren eta ekosistemen jardunbideari dakartzion eraginak azaldu zituzten Josep Peñuelas CSICeko Ikerketako irakaslek eta Alejandro Cantero IKT enpresako

mendi ingeniariak. Peñuelasek landareetan eta animalietan, batez ere, nabari dela dagoneko aldaketa baten aurrean gaudela azaldu zuen, besteak beste. Canterok, bestalde, klima aldaketak izango dituen eraginak ekiditeko baso gehiago sortzearen garantzia azpimarratu zuen.

Gaurko hitzaldiari dagokionez, Antonio Ruiz Elvira Fisika Aplikatuko katedraduna ariko da Lucila Izquierdo ikertzailearekin batera, 20:00etatik aurrera Kultur Etxean. *Etorkizuneko*



Javier Retegui eta Luis Balairon Ruiz, herenegun Kultur Etxean. I. T.

energiak: geure burua petrolioa bukatzen denerako prestatzen izango da hitzaldiaren izenburua. Ruiz Elvirak azaldu duenez, «gaur egungo egoera zein den azalduko dut, nor goazen, eta horren aurrean zer egin daitekeen; munduan, batez beste 0,6 gradu igo da tenperatura, eta Euskal Herrian, berriz, 1,3, eta lehen baino epe luzeagoak ditugu euririk gabe.

Dena den, hau aldatzea posible da, horretarako nahikoa baliabide baititugu; garrantzitsuena pentsamoldea aldatzea da, hau da, energia kontsumo handia aurrerapena dela ez pentsatzea, eta teknologia aukerak ez biderkatzea energia iturri berriak aprobetxatuz». Honetaz guztiaz gaurko hitzaldian izango du luze eta zabal hitz egiteko aukera.

NATURALDIA ▶

GAUR, APIRILAK 25

'Etorkizuneko energiak: geure burua petrolioa bukatzen denerako prestatzen'. Hizlariak, Antonio Ruiz Elvira Fisika Aplikatuko katedraduna eta Lucila Izquierdo ikertzailea. Aurkezlea, Beatriz Marticorena.

BIHAR, APIRILAK 26

'Klima aldaketa, eta Bizkaiko itsasoari dakarkion eragina'.

Hizlariak, Margarita Marin meteorologa eta Adolfo Uriarte Ozeanografiako doktorea. Aurkezlea, Javier Urrutia biologoa.

ETZI, APIRILAK 27

'Tolosa Naturaldia bertsoz bertso'. Sebastian Lizaso, Angel Mari Peñagarikano, Susirai Colina eta Aitor Sarriegi ariko dira bertsoan aldaketa klimatikoari buruz. Gai-jartzaile, Unai Elizasu.

POLITIKA ▶



Onintza Lasa EAren zerrendaburu

I. Terradillos ▶ Atzo aurkeztu zuten Onintza Lasa Tolosako EAren zerrendaburu bezala datozen lau urteetarako. Aurkezpenean berearekin batera izan ziren Unai Ziarreta EAren idazkari nagusia (ezkerrean) eta Iñaki Galdos Gipuzkoako EAren lehendakaria (eskuinean). *Tolosa buruan ta ibili munduan* lelopean, «tolosar guztiak kontuan hartuta eta tolosar guztiarentzat eraiki nahi dugu Tolosa», azpimarratu zuen Lasak. I. T.

GIZARTEA ▶



Tuterako ezbeharrak salatu dute

I. Terradillos ▶ Elkarteratzea egin zuten herenegun Triangulon Bilgune Feministak deituta, Tuteran gizon batek emakumezko bat erail zuela salatuz. Ezbeharrak iragan ostegunean gertatu zen; 22 urte inguruko gizon batek bere neska laguna, 29 urtekoa, erail zuen itota, eta ondoren, bere buruaz beste egin zuen. Gizonaren gorpua zuhaitz batean urkatuta aurkitu zuten, eta ondoren emakumezkoarena etxean. I. T.


hitza

Harpidedunen txokoa

HITZAKo harpidedunen artean ostegunean **apirilak 26**, 21:00etan, **MARIZA** fado kantariak Leidor aretoan eskainiko duen kontzerturako **2 harpidedunentzako bina sarrera zozketatu** ditugu! Hauek dira **irabazleak**:

▶ Miren Atxaga (Tolosa) ▶ Bittor Amondarain (Irura)

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea



POLITIKA ▶

3.000 sinaduratik gora bildu ditu gurean ezker abertzaleak

Tolosaldekoak gustura daude «prozesu eta hauteskunde demokratikoaren alde» jendeak emandako erantzunarekin

ESTI EZEIZA

«Prozesu eta hauteskunde demokratikoaren alde» ezker abertzaleak eginiko sinadura bilketaren balantze baikorra egiten dute. Beraiek luzatutako datuen arabera Euskal Herrian 82.000 pertsonak sinatu dute, eta Gipuzkoan 32.000k. Hori dela eta, Tolosaldeko ezker abertzaleak hau ahalbideratu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiete, eta aldi berean zoriondu.

Ezker abertzalekoen esanetan, «herritar hauek guztiak sinatzearekin, ezker abertzaleak hauteskundeetan egon behar duela aldarrikatzeaz gain, prozesu demokratikoaren alde eta era berean, ilegazazioaren aurka daudela erakutsi dute mila-herriarrek». Bestalde, gaitzetsi dute zenbait alderdiren jarrera «faltan bota baititugu



Tolosa ezker abertzalekoak sinadura bilketaren aurkezpena. E. E.

alderdien legearen aurka dauden horiek». Izan ere, beraien ustetan, Euskal Herriak prozesu eta hauteskunde demokratikoak behar ditu, eta hau ez da ezker abertzalearen arazoa

soilik, «guztiok egin behar baitugu aurre egoera honi».

Bestalde ideia nagusi bezala ondorengo agertzen du: «Herri honetan zabalik dugu gatazka behin betikoz konpontze-

SINADURAK ▶

Tolosaldeko ezker abertzaleak emandako datuen arabera hauek dira kopuruak. Aipatzeko dauden herri batzuetan ez da bilketarik egin eta gainontzekoetakoa zehazteke daude.

Herria	Kopurua
Abaltzisketa	10
Aduna	50
Alegia	140
Altzo	22
Ametzeta	125
Anoeta	167
Asteasu	108
Belauntza	19
Berastegi	54
Berrobi	10
Bidegoian	6
Elduain	29
Gaztelu	33
Ibarra	355
Ikaztegieta	69
Irura	92
Leaburu	52
Lizartza	135
Orendain	30
Orexa	69
Tolosa	950
Villabona	380
Zizurkil	159

ko aukera. Horri bergira ari gara lanean. Konponbidea dago jokoan. Konponbidea borrokatuz irabazteko aukera. Euskal Herri berria osatzeko aukera».

ARETO FUTBOLA ▶

Sei garaipen lortu dituzte jarraian Laskoraingoek

ERREDAKZIOA

Aste Santua zela-eta bi aste-burutan jokatu gabe egon ondoren, partida txukuna burutu zuten igandean Laskoraingoek.

Jarrilleros taldea izan zuten aurkari. Lehenengo zatiko 10 minutuak izan ziren partidaren gakoak. Ikastola-koek konfidantzarekin jokatu zuten, eta 3 gol sartu zituzten denbora tarte horretan. Handik aurrera lorturiko errenta hori zaindu nahian ibili ziren etxeok, eta lehenengo zatia 3-0koarekin amaitu zuten. Bigarrenean ez zen gol horirik markagailuratu, bizkaitarrak izan ziren alde murritu zutenak. Partida amaizteko minutu gutxi falta zirenean atezain-jokalari atera zuten kanpotarrek eta norgehiagoka 3-1ekorekin ixtea lortu zuten.

Igandeko partidarekin sei-garren garaipena jarraian lortu dute Egizabalenen mutilek. Honi esker Nazional B mailako lehenengo talde gipuzkoarra izateko borrokan dihardute.

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Hizkuntz gatazka (II)

EAJren hizkuntz politika PSOE-ren demagogiara makurtu da eta euskaldunen hizkuntz eskubideak sistematikoki urratzen dira. Euskal Herri euskalduna berreskuratzeko derri-gorrezkoa da hizkuntz gatazkaren sustraitara jotzea eta esparru politiko berria eraikitzea. Batetik, Espainiak eta Frantziak mendeetako in-

darkeriaz inposatu dituzten kanpoko hizkuntzen nagusitasuna bukatzeko eta Euskal Herriak hizkuntz eskubide guztiez hornitutako euskararen ofizialtasun berria bideratzeko. Bestetik, Euskal Herriaren burujabetza eta botere tresna demokratiko guztiak euskal herritarren esku jartzeko, guztion artean geure etorkizun euskalduna eraiki dezagun, bi estatuen injerentziarik gabe. Hizkuntz gatazka konpontzeko eta mendetako injustiziaren

ondorioak kitatzeko, beraz, esparru politiko berriaren bide juridikoak euskararen normal-kuntza osoaren egiazko aukera jaso behar du Euskal Herri osoan eta Udalbiltzaren Hizkuntza Eskubideen Kartak diotena gauzatu. Euskal Herria euskaldun peto irauteko eta egoera hori mantentzeko baldintza eta berme nahikorekin.

Horretarako, euskara berreskuratzeko hizkuntz politika nazionala, burujabea eta lehenetasunezkoa gauzatu behar

da. Bakarra Euskal Herri osoan, baina tokian tokiko errealtaterara egokituz, malgutasunez jokatzu, ikuspegi pertsonala, kohesio soziala eta identitate nazionala bizitzeko. Bi korapilo nagusi askatzeko. Bat, autode-terminazio linguistikoaz baliatzea, euskal herritarrek libreki eta demokratikoki erabaki dezaten bizi nahi duten estatus linguistikoa. Bi, egoera minorizatua gainditzea, hots, euskal herritar guztiak euskalduntzea eta nazio mailako jardungune

soziofuntzionalak euskalduntzea. Euskararen ordezkatze prozesua itzulbidean jartzeko eta aldaketa soziolinguistikoa burutzeko Euskal Herri osoan. Aldaketa iraultzaile eta bake-tsu hori bideratzeko, euskararen inflexio puntua eraginkortasunez garatu behar da, norabide iraunkorra ezarri eta lidergo partekatua bideratuz, erakunde publikoen, eragile sozialen eta euskalgintzaren arteko auzolana bermatzeko.

INAXIO AGIRRE (AUB) ▶ TOLOSA

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldekohitza.info
Tel.: 943 65 56 95

KOLDOBIKA JAUREGI ▶ ESKULTOREA

«Obra herriak bereganatzen duenean sortzen da benetako artea»

Koldobika Jauregi eskultore alkizarraren 'Natura eta errealtatea' erakusketa ikusgai dago Bilboko Guggenheim museoan

IMANOL GARCIA

Setioa I eta *Budaren burkoa* obrak ikusi ahal dira, besteak beste, Bilboko Guggenheim museoan Koldobika Jauregi (Alkiza, 1959) eskultorearen *Natura eta errealtatea* erakusketaren baitan.

Nola sortu da erakusketa egitearena?

2003an enkargu bat egin zidan Guggenheimek. Berdin zitzaion eginda zegoen pieza bat erostea edo berria. Nik erabaki nuen berri bat egitea. Garai hartan serie asko neuzkan hasita, beste batzuen artean *Budaren burkoa* bera ere. Kontua da momentu horretan hasi zela Irakeko inbasioa edo setioa. Gogoratzen naiz luzea izan zela. Konturatu nintzen gero eta haserreago nengoela eta hori nuela denbora guztian buruan. Eta hori jorratzea erabaki nuen.

Deskribatu zazu *Setioa I* obra. Alde batetik totem bat dago. Erakusketarako ez nuen nahi eskultura horren atzean berekin zerikusirik ez zuen zer-bait egotea eta paisaia bat behar zuela pentsatu nuen. Ho-



RAUL BOGAJO/ARGAZKI PRESS

rela triptiko bat egin nuen eta bertan karga sinboliko handia duen zubi bat dago irudikatuta, setiatuak eta setiatzaileak batzen dituena. Totemean etxeak eta zuhaitzak daude irudikatuta beheko partean eta goian eguzki disko bat dago. Eguzki hori sartzen denean, gauean, orduan hasten da se-

tioa. Telebistako irudiek hori erakusten zuten. Totemak ere pertsonaia baten itxura har dezake, lehen esandako paisaiara begira dagoena.

Budaren burkoa obrak *Setioa I* osatzen du.

Garai horretan beste lan batzuk ere jorratzen hasita nengoen, Zen munduarekin lotuta. Nolabait atentzioa deitzen zidan setioa gertatzen ari zen bitartean Zen munduko monjeak pareta begira gelditzea meditazioan. Deigarria zitzaidan ez kritika bezala, baizik eta gauza osagarri bat bezala, errealtatearen osagarri bat bezala. Esanenezake: Iraken bonbardatzen ari dira eta gu hemen ari gara taberna batean lasai-lasai garagardo bat hartzen.

Zer esan nahi du lan horrek?

Bai Afrikan bai Ekialdean, nomadek eramaten dute bererakin burko bat. Buda ere askotan etzanda agertzen da eta budistek ideia bat dute: gu Budaren amets bat besterik ez gabela eta Buda esnatzerakoan desagertu egingo gabela. Horrek esan nahi du akaso errealtate hau baino beste batzuk ere badaudela. Erreflexio bat egiten da: mundua hau baino gehiago da? Irakeko gerra da edo hortaz aparte gu garagardo hartzen hori ere errealtate da? Edo zenbat errealtate daude osatzen dutena errealtate hau?

Erakusketa modu didaktiko batean antolatuta dago. H-

tzaldi bat ere oman behar duzu.

Erakusketa *Setioa I* obran dago zentratuta. Eta horregatik daude ere hamar bozeto, garai hartan egindako marrazkiatik aukeratutakoak. Gero burdinezko lau pieza daude, etxeren, zuhaitzen eta eguzki diskoaren maketak. Guztia bideo batekin osatzen da eta hor esplikatzeko dira marrazkien eta zenbait erreflexioen bidez pieza hori non kokatu eta nola. Azalpenak ematea garrantzitsua da. Nik uste dut dibertigarria dela jendearentzat, kuriositate sortzen duela.

Orokorrean ez ahal daude aldentuta artistak eta jendea?

Gaur [atz] goizean kafea hartu dut donuts batekin gasolindegitean aldamenekoak bezala. Eta gero bapatean halako txorrada sortzen zaigu buruan eta orduan badirudi aingeruen moduan beste guztien gainetik gabiltzala. Nire aldetik, ahal dudana neurrian, hori puskatzen saiatzen naiz. Ez gaude hain urrutu jendearengandik. Arazo eta kezka berdinak ditugu. Egiten duguna gustatzen bazaie, bereganatzea eta elkarbanatzea da garrantzitsua. Badakit Guggenheimek sekulako ospea duela eta lanak publikoari hurbiltzeko lan hori egitea eskertzekoa da.

Zer proiektu dituzu egun?

Erakusketa batzuk prestatzen ari naiz. Liburuaren inguruko erreflexioei buruzkoa irailan Bilbon egingo dudana. Ekainean, Donostian, burdin gainean egindako lanak erakutsiko ditut. Beste erakusketa bat Zuberoan, Altzurukun, uztailean. Tolosan egindako *Kantu txila* erakusketarekin zerikusia duena. Herrian kantuaren inguruko jaialdia egiten dute. Erakusketa osatu nahi dute kantatuz eta Belatzaren kanta xirularekin joz. Oso kantu berezia da, magikoa, iniziatikoa: belatza baten hegaldia deskribatzen du. Nik burdin gainean belatzaren hegaldi hori ere deskribatu nahi dut. Hunkiturik nago erakusketari egin dioten harrera onarekin. Uste dut herriak obra bereganatzen duenean sortzen dela benetako artea. Dagoeneko ez da nerea ez haiena, baizik herriarena. Eta uste dut hori dela garrantzitsua.

ANOETA ▶

Tailerra eta erakusketa, liburuaren inguruan

ERREDAKZIOA

Anoetako Udalak Liburuaren Nazioarteko Egunaren inguruan bi egitasmo antolatu ditu, tailer bat eta erakusketa. *Irakurketaz gozatzen* izeneko tailerra gurasoei zuzendutakoa da. Yolanda Arrieta idazle eta literatura animatzaileak emango du.

Tailerrean, irakurgaiak aztertzea gain, ipuinak nola kontatu eta nola irakurri landuko dute, era praktikoz eta gurasoen partaidetza zuzena bilatuz. Saiotzen landutako testuak etxeko haurrekin nola funtzionatzen duten aztertuko dute, adin eta egoera desberdinak kontuan hartuz. 0-5 urteko haurren gurasoentzat zuzenduta dago eta Udal Liburutegian izango da. Maiatzaren 14, 21 eta 31n (ostegunak) egingo dituzte, 15:15etik 16:45era. Izena emateko epea ostiral honetan amaitzen da eta udaletxean edo liburutegian egin daiteke.

Bestalde, Andersenek idatzitako ipuinetan oinarrituriko erakusketa ikusteko aukera izango da. Erakusketa bost panelek osatzen dute. Bertan Andersenen 10 ipuin eta hauetan oinarrituriko 10 ilustrazio agertzen dira. Abraham Olanok irrodiegian ikusi ahal da maiatzaren 2tik 9ra, biak barne. Asteleheneetik ostiralera 10:00etatik 12:30era eta 15:00etatik 21:00etara; larunbatean 09:00etatik 13:00etara.

ZIZURKIL ▶

‘Erase una vez la opera’, antzezlan izango da gaur

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo V. Antzerki Asteak aurrera jarraitzen du. Egunero emanaldiak egiten ari dira eta gaurkorako ere badago antolatuta emanaldi bat. Belatrix taldeak egingo du emanaldia, *Erase una vez la opera* izeneko. Atxulondo kultur etxean egingo dute antzezlan, 17:00etatik aurrera.

Jaia Laia eta berriaren eskutik
Fermin Muguruzak prestatutako musika bilduma bikaina

Gaztetxoak eta heldiak
Bakarrekin dantzatzen

‘Musika Munduko Jolastokian’

EUSKAL HERRIA, J.C.Perez: Flanney eta bere astiakok
 JAMAICA: Cabello Miley: Booker with Topi Mohai: Smokey island of song
 EUSKAL HERRIA: Iñaki Muguruzak: 30, 36
 LINDSAY: The Beatles: songs: All you need is love
 KUBA: Lázaro Moreno: Travesía: migallo
 HEGOAFRIKA: Ladysmith Black Mambazo: Gift of the tortoise
 NEW ORLEANS: Buckwheat Zydeco: Chou chou bougoulo
 MEXIKO: Los Lobos with Lalo Guerrero: Papa's dream

Maiatzaren 5etik aurrera
larunbaterako disko bat kioskoan

+ 5,30 €

AUKERA EZAZULU, BIZI EUSKARAZ **berria**

ALEGIA ▶ KULTURA

Txintxarri Txikikoak Jakara joango dira

Hiru egunez izango dira eta etzi abiatuko dira zazpi kantako kontzertua eskaintzera



Txintxarri Txiki Abesbatza Alegian egindako saio batean. E. ARRAYET

ERREDAKZIOA

Larunbatean kontzertu bat emango du Alegiko Txintxarri Txiki abesbatzak Jakara (Espainia). 3 eguneko bidaiara egingo da, etzi abiatuta. Bertako Coro Albae Voces abesbatzak ere parte hartuko du.

Bi abesbatzen arteko trukea izango da, geroago hamabost abeslariz osaturiko Jakako abesbatzak Alegiara etorriko baita.

Zazpi abestiz osaturiko kon-

zertua eskainiko dute. *Xaladorren heriotza*, *Umetxoaren negarra* edota *Uso zuria* abestuko dituzte; Brasilgo eta Kubako kantuekin erritmoa jarriko diote kontzertuari. Bukerana bi abesbatzek elkarrekin kantatuko dute, *Aldapeko* eta *Siyahamba* afrikar doinu eza-guna.

Txintxarri Txikiko abeslariak Jakako aterpetxean egongo dira eta bertako bazterrak bisitatzeko aprobetxatuko dituzte egun horiek.

ALEGIA ▶ KULTURA

Gazteen bertso paper lehiaketa maiatzaren 11n izango da

Eskolako liburutegian egingo dituzte, adinetan eta mailatan banatuta; helduen epea maiatzaren 18an bukatuko da



lazkoa I. Bertso Paper Lehiaketan gaztekoen mailan. N. URBIZU

rakoak dira». Bi taldeetako bi zepahiru gai emango dizkiete bertsoak edo koplak egiteko.

Sariak emateko garaian 8-12 eta 12-16 urte tarsteak banatuko dituzte. Beti ere partaide kopuruaren arabera «ikusiko genuke lehiaketako sari-emateak nola egin».

Bertso paper asko aurkeztuko balira, sorpresaren bat edo beste izan daitekeela ere argitu dute antolatzaileek. Zazpi Astoren Gaietan bertso eskolako animatua egiten dituzte bertsozaleak, lehiaketa honetan ere ari- tuz daitezten.

Helduen epea irekita

Helduen bertso paper lehiaketa epea zabalik dago, eta entregatzeko epea maiatzaren 18a izango da. Alegiko Kultur Etxean edo helbide elektroniko bidal daitezke: zazpiastorengaietan@euskalerrria.org. Gutxienez 5 eta gehienez 10 bertso idatzi behar dira eta erabilitako doinu eta izenburua zehaztu egin behar da, argi eta garbi.

Gutunazal itxi batean bertso lanarekin eta beste gutunazal batean egilearen datuak: izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia... jarrita. Bi gutunazal- letan egilearen ezizena jarri behar da.

Bertso afariren bat egin nahi dute sariak banatzeko mementua egiteko, eta bestela ere bai, iaz ere egin baituzten, eta «oso pozik» geratu ziren antolatzaileak.

NAREA URBIZU

Zazpi Astoren Gaietan bertso eskolako duela 10 egun iragarri zuten aurtengo bertso paper lehiaketa, baina ez zeuden gaztekoen hainbat datu zehaztuta. Maiatzaren 11 izango da bertsoak idazteko eguna.

Eskolakoekin egon dira umeen bertso-paper lehiaketa nola egin erabakitzeko antolatzaileak. Azkenean hauxe erabaki dute: maiatzak 11 ostirala, 13:30ean hasita eskolako liburutegian elkartuko dira.

Nahi duten umeek hartuko dute parte. Aurrena 14:30a ingurura arte DBHko parte-har-

tzaileak izango dira, hau da, 12tik 16 urte bitartekoak. Hala ere, «hau baieztatu gabe dago oraindik, bertako zuzendariarekin data eta orduak zehaztu gabe baitaizkagu», argitu zuten antolatzaileek. «Hau guztia San Juan Herri eskolako zuzendariarekin hitz egin dugu, baina orain DBHko (Aralar institutoko) zuzendariari komentatu behar dio».

Bestalde, 8 urtetik 12 urte artekoek, 14:15etik 15:15 ingurura arte 3. eta 4. mailakoek parte hartuko lukete, eskolako liburutegian ere, eta 5. eta 6. mailakoek 15:15etik 16:00 arte. «Ordu hauek gutxi gora behe-

KOMUNIKABIDEAK ▶

Albizturko eta Berastegiko bi neska 'Mihiluzen'

Gaur eta beste hiru egunez ETB-1eko *Mihiluze* saioan Tolosaldeko bi neskek hartuko dute parte: Berastegiko Jone Gorostazu eta Albizturko Esti Ezeiza izango dira eta 21:30ean izango da. Tartean maiatzaren 1a dagoenez, ezin da jakin noiz emitituko diren hurrengo asteko bi saioak.

ALEGIA ▶

Intxurreko neskek Altzakoen aurka jokatuko dute

Intxurreko neskek igoera faseko partida oso garrantzitsua jokatuko dute etzi, 21:00etan, Alegian bertan. Oso talde gogorra da eta benetako areto futbol ikusteko aukera izango da Alegian. Denen animoak beharko dituzte, orain arte bezala ondo jokatzeke, baita Altzakoen aurka ere.

<p>Higiezin Agentzia</p> <p>Pablo Gorosabel 40 1. solairua • 7. Dulegoa 20400 TOLOSA Tel./faxa: 943 65 55 87 Sakelakoa: 669 368 994</p>	<p>Anoeta. Harrizko baserrian 90m2ko etxebizitza salgai.</p>	<p>bainugela, altzariek, garajea eta trasteleku duen etxebizitza.</p>	<p>Zabalurretan. Hiru logela, garajea eta trastelekuarekin.</p>
	<p>Berritzeko.</p>	<p>Tolosa. San Esteban auzunean, kanpora begirako 100 m2ko etxebizitza salgai. Berritu beharrekoa.</p>	<p>Tolosa. Santa Klaran, 90 m2ko etxebizitza, atzealdean lur sailarekin.</p>
	<p>Belauntza. 350 m2ko pabilioia alokairuan, instalaturik.</p>	<p>Tolosa. San Esteban auzunean, bi gelako etxebizitza, igogailuarekin eta erabat berritua.</p>	<p>Tolosa. Pedro de Tolosa. 122 m2ko etxebizitza, garajea eta trasteleku.</p>
	<p>Berastegi. 2 solairuko pabilioia alokairuan, 700 m2 solairuko.</p>	<p>Tolosa. San Esteban auzunean, bi gelako etxebizitza, igogailuarekin eta erabat berritua.</p>	<p>Tolosa. Zumalakarregi kalean, lehenengo solairuan 105 m2ko etxebizitza.</p>
	<p>Berrobi. Laugarren solairuan etxebizitza salgai. Berritua.</p>	<p>Tolosa. Ugarran Goenan, baserria berritu beharrekoa. 3 solairuko.</p>	<p>Tolosa. Laskorain kalea. Behe solairuan etxebizitza. Berritua.</p>
	<p>Legorreta. Landa lurren 3 hektarea.</p>	<p>Tolosa. San Frantzisko, 75 m2ko atikoa salgai. Eraberritzeke.</p>	<p>Tolosa. Maituna zaharra. Azken garaje itxiak, 30m2tik aurrera. Karga jasogailuekin sartzeko. Lanak laister hasiko dituzte.</p>
	<p>Lizartza. Etxe bifamiliar batentzako lurra eta abeltzaintzarako ustiatetarekin.</p>	<p>Tolosa. Berazubi. Etxebizitza eraberritua, 4. solairua, igogailua jartzeko proiektua marban.</p>	<p>Tolosa. Lurrumendi Ibiltokia, etxebizitza, 3 logela, komuna, baionugela, altzariek, garajea eta trasteleku.</p>
	<p>Irura. San Miguel plaza. Atikoa. 76 m2 erabilgarri.</p>	<p>Tolosa. Agintari kalea. Bi logelako etxebizitza. Egongela, sukalde eta komunarekin.</p>	
	<p>Irura. Etxezarreta; 3 logela, komuna,</p>	<p>Tolosa. 89 m2ko etxebizitza salgai</p>	

Orexako Udala
IRAGARKIA

Orexako Udalak, 2007ko martxoaren 26an egindako bilkura nagusian, Orexako herriko tabernaren ustiapena esleitzeko lehiaketa arautuko duen baldintza ekonomiko-administratibo berrien plegua onartu zuen, Hori dela eta, Orexako herriko tabernaren ustiapena esleitzeko lehiaketan parte hartzeko norbit interesatua egonez gero, Baldintza Pleguak diotena beteaz, bere izena Orexako Udaltxean eman behar du Maiatzaren 15 bitartean. Udaltzeko lanordutegia hau da: Astearte eta Ostegunetan, 10etatik 14ak bitarte. Telefonoa: 943 682 029.

Orexan, 2007ko apirilaren 24an.
ALKATEAK
Sin: Aritz Luloaga Malkorra

PATXI ZEBERIO ▶ ERREMONTISTA



IÑAKI VERGARA

«Txapela irabazteko eurek egun txar bat izan behar zutela argi nuen»

Zeberio II-Agirrezabala bikoteak Patxaran Baines Txapelketako finalean ezustekoa eman zuten 10 tantoko aurkako errentari buelta ematean

ASIER IMAZ

Patxi Zeberio (Elduain, 1974) Patxaran Baines Txapelketa irabazi zuen asteburuan Igor Agirrezabalarekin batera. Emozioz beteriko itzulerako partida jokatu zuten, izan ere lehen neurketan 10 tantogatik galdu baitzuten. Galarretan jokatu zuten partidana 40-27 irabazi ostean, Uterga-Urrutiak ia buruan zuten txapela bereganatu zuten. Agirrezabalak lan

ona burutu bazuen ere, Zeberio II.a izan zen partidako izarra.

Galarretan 4 hutsegite eta 21 tantu egin zenituen. Beste pelotariek gaineratik ibili zinen azken partidana.

10 tanto kontra genituen eta jokuan sartu beharra neukan. Agirrezabalak bere papera bikaïn bete du baina ez du Urrutiak izan lezakeen kolperik partida hausteko. Argi nuen beraz, jokuan sartzeaz gain arriskatu

egin beharra nuela. Horrela egin nuen eta pattalaldi bat pasa arren partidaren erdian, gustura sentitu nintzen.

Lehen partida galdu ondoren nola joan zineten bigarrenera?

Partida irabazteko aukerak ikusten genituen eta gogotsu hasi nintzen. Hala eta guztiz ere ez genuen txapelketa irabazte-

ko aukera handiegirik ikusten. Argi genuen horretarako berriak egun txar bat izan behar zutela, eta horrela gertatu zen. Oso indartsu hasi ginen eta alde polita hartu genuen. Honek beraien urduritasuna areagotu zuen eta ez zuten jokoan sartzerik izan. Ondoren abantaila mantendu genuen. Arraroa izan da partida hau, bu-

PARTIDAKO IZARRA

«10 tantoko errenta genuen aurka eta jokuan sartu beharra nuen, arriskatu beharra neukan»

TXAPELKETA

«Haseran ez nebilen ongi hanketatik baina konfidantza eta txisparekin amaitu dut azkenean»

BURUZ BURUKOIA

«Abuztuan hasiko da eta uda aldean bertarako prestaketa lanekin hasiko naiz, sakea batez ere»

ruan kalkulagailuarekin lanean aritzea bezala izan da. Berriak ere ez die horrek batere lagundu.

Patxaran Baines Txapelketa nahiko berezia da?

Ez da punta-puntako txapelketa baina bai garrantzitsua erre-montearantzat. Patrozinatzaileak behar ditugu eta Patxaran Bainesi eskerrak eman beharra dago. Bi partidetak jokatzea berezia da, bai. Frontoi motzean ere lehen aldiz jokatu dugu txapelketa batean. Bikoteak ere maila altu eta bajokoen artean osatuak egon dira, estelarretan jokatzen ez zutenek aukera izan dute.

Patxaran Baines Txapelketa irabazteak aurrera begira, indarra emango dizu, ezta?

Bai horrela izango da. Baines Txapelketa hasieran hanketatik eta jokuz ere txisparik gabe nebilen. Amaieran berriz gustura aurkitu naiz eta horretarako balio izan du. Orain buruan San Ferminetako Txapelketa eta buruz burukoia dauzkak.

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukalde laguntzaileak.

Jangeletarako, eskolak.

Telefonoa: 943 44 48 66.

Gidaria. Erakunde publikoetarako. 943 44 48 66.

Sukaldaria. Villabonan sukaldaria behar da. Telefonoa: 943 69 19 33.

Zaintzailea. Albizturren, 2 haur zaintzeko pertsona behar da autoarekin. 662 01 92 62.

Zerbitzaria. Tolosaldean taberna baterako zerbitzari bat behar da laur orduz lan egiteko. 635 74 52 91/943 69 43 13.

IBARRA ▶

Xabier Fernandez Frantziako Aste Olimpikoa

Frantziako Aste Olimpikoa, Xabier Fernandez ibartarra ari da parte hartzen, Iker Martinezekin batera bela arineko lehiaketan. Igandean hasi ziren Marsella inguruko Hyères herrian Europako zirkuitoko probarik garrantzitsuenan. Partaide garrantzitsuak elkartu dira bertan.

IBARRA ▶

Epea zabalik Izaskungo erromerirako

Bizi Nahi erretiratuen elkar-tearen 25. urteurrenean erromeria antolatu dute Izaskuneko maiatzaren 18an. Egun guztian zehar egongo dira ekitaldiak; toka lehiaketa, meza, bazkaria eta dantzariak izango dira, besteak beste. Izena emateko epea ja-danik zabaldu dute.

KAZETARIAK (Erref.: 07-KAZB)

Berria egunkariak 3 kazetari behar ditu maiatzean eta ekainean aritzeko.

Eskaintzen da:

- Lanean segituan hastea.
- Prestakuntza espezifikoa jasotzea.

Eskatzen da:

- Kazetaritza ikasketak izatea, edo kazetaritza lanetan esperientzia izatea.

Kontuan hartuko da:

- Quark X Press programa erabiltzen jakitea

Bidali curriculuma gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora, erreferentzia zehazturik, apirilaren 27a baino lehen.

LURDES BALANZATEGI ▶ SAHARAR HERRIAREKIN ELKARTASUNA TALDEKO KIDEA

«Saharan kanpotik jasotzen duten laguntzari esker bizi dira»

Lurdes Balanzategi, urtero bezala, udan herrian Saharako umeak jasotzeko lanean ari da

NAIARA GARZIA

Lurdes Balanzategi (Leitza, 1965) beste kide batzuekin batera, 7 urte daramatza Sahararen alde lan egiten. Udan zehar umeak jasotzeko izena emateko epea zabaldu dute jada, Karrape Irratian (948 610914) edo 948 510515 zenbakian.

Oraingo Leitzan zenbatek izena eman dute?

Leitzan bik eta gero zonaldean, zortzik.

Talde bezala lan egiten duzue?

Bai, Sahara Herriarekin Elkartasun Taldea bezala. Leitzatik hasi ginen. Gero Malerrekan eta Baztanen kanpainak egin genituen, eta elkarrekin egin dugu lan. Orain Malerreka eta Baztan aldean beste talde bat sortu da, baina gurekin harremana mantentzen dute.

Nola hasi zineten?

Nafarroan umeak ekartzeko hasi ziren eta eliz ganbaran bilera bat zegoela ikusi genuen,

eta zer zen ikustera joan ginen. Ideia gustatu egin zitzaigun eta sartu egin ginen. Gero lanean hasi ginen eta urteak pasatu arren taldea mantendu egin da, hasieratik gutxi gorabehera pertsona berdintsuak bai-kaude.

Burokratikoki lan handia egin behar izaten duzue?

Iruñean Frente Polisarioaren bulego bat dago eta Anas izeneko GBE batekin elkarlanean burokrazia guztia egiten dute. Guk herrietan egiten dugu lan. **Hasieran ume asko etorri ziren. Halako erantzunik espero al zenuten?**

Lehenengo urtea ikaragarria izan zen, Leitza eta Areson soilik 22 ume etorri ziren.

Zure ustez orain zergatik animatzen dira familia gutdago?

Ez da ume bat ekartzeta eta kitto. Gogorra da, kontutan hartu behar da ume hauek bere familiarengandik bereizten direla, gu ez gara ezagunak beraien-izat, kultura oso ezberdina da... Nahiz eta han gauza materialak ez eduki afektibitate aldetik oso ongi daude. Honetaz gain, urte batean hango eta hemengo umeen artean arazo batzuk egon ziren eta horrek zerikusirik ere izan du. Gainera bi hila-beteetarako etortzen dira eta familia askok ezin dute bi hila-betez umerik eduki. Jendeak Sahararen alde lan egiten jarraitzen du, beste modu batean, janaria bidaliz, esaterako. Halere esan behar da Nafarroan orokorrean kopuru honek gora egin duela, aurtun 100 ume heldu baitira, eta iaz 80 etorri ziren.

Kanpamenduetan nola bizi dira?

Udan 50 gradu egiten ditu, 60 azkeneko urteetan. Kontutan hartu behar da errefuxiatu kanpamendu bat dela eta han bero horretatik babesteko ez daukate deus. Kanpin-dentatzen bizi dira, basamortuan. Urrik ez daukate, egunero ematen dute kamioi batean Arge-



N. GARZIA

liatik. Ume txikiak, jai berriak, askotan hil egiten dira.

Halentzat zer suposatzen du udan honera etortzeak?

Aurreneko gauza udan han egiten duen beroarekin handik ateratzea. Gero elikadura aldetik ere gabezia asko dituzte. Saharan kanpotik jasotzen duten laguntzari esker bizi dira. Horrek zera esan nahi du, batzuetan batean hango eta hemengo medikuak, ez. Orain gainera janariarekin presioa egiten ari dira eta janari gutxiago daukate. Honera etortzen direnean, bi hilabetetan denetatik jaten dute eta indarra hartzen dute. Haienzako hau oso garrantzitsua da. Eta gero osasun aldetik ere hemen ume guztiei azterketa medikoak egiten zaizkie eta batzuk tratamenduak edo ebakuntzak behar izaten dituzte.

Haiak honera pozik etortzen dira?

Bai, pozik etortzen dira, baina familiarekin asko gogoratzen dira. Eta azkeneko egunetan denbora guztian ea noiz itzuliko diren galdetzen dute. **Hara joateko aukerak ere izan dituzu, ezta?**

Bai, hara urtean bi bidaia izaten dira, errefuxiatu kanpamendu bat denez ezin baitzara

nahi duzunean joan. Lanera joaten bazara, edo proiektu batekin, orduan bai, baina bestela Aste Santuan eta abenduan soilik joan zaitezke.

Zure esperientzia han nolako izan da?

Ni bi aldiz izan naiz Saharan, bi modu ezberdinetan. Hemendik mediku batzuk joan ziren eta guk ere joateko aukera izan genuen. Ospitaleak ikusi genituen, eta adibidez ez daukate ebakuntzak egiteko anestesiarik, nahiz eta hemengo medikuek, hara joaten direnean, eramaten duten. Ospitalean umeak eta emakumeak nola zeuden ikustea... gogorra da. Beste bidaia batean nik ume bat hartu nuen bisitan joan nintzen eta horrela joatea ezberdina da.

Hango jondea nola ikusi zenuen?

Ikaragarria da. Oso zaila da hain pozik zergatik bizi diren ulertzea. Nahiz eta hain gaizki bizi, beti irrifartsu daude. Gainera, orokorra da. Ilusioa daukate, haien herrira itzuliko direla esaten dute... Ezin da deskribitu. Guk materialki gauza asko dauzkagu, baina beraien irrifarrak ikusi edo gureak, ez dira berdinak, ezin dira alderatu.

LEITZA ▶

Bengoetxea VII.a eta Gorriti Tuteran txapeldun

N. GARZIA

Bengoetxea VII.ak eta Gorriti urtero Tuteran jokatzeko den Barazkien Txapelketa delakoa irabazi zuten igandean.

Larunbatean finalaurrekoa jokatu zuten Antxia eta Zabalauren aurka, baina leitzarrak ez zuten irabaziko zutenik pentsatzen. «Azkenaldian nahiko panggal ibili naiz eta ez genuen irabaztea espero».

Finalaurrekoa ezezki, finala ere irabazi egin zuten, ordea. Hasieratik nabarmendu ziren, bi bikoteen arteko tartea irekiz (10-3). 21-12 zihoztela, Urdaniz eta Armendarizek jarraian egin zituzten 5 tantoek urduri jartzeko arrazoiak eman zizkieten arren, azkenean 5 tantorengatik irabazi zuten.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarralde.** Osasun ebte: 672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Iruia.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzio Klinikak 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ **Ertzaintza:** 538820

▶ **Tolosa-Udaltzaingoa:** 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ **Iurramendi egoitza:** 670325

▶ **Tolosa gasa:** 675320

IRIBARREA

«Guk materialki gauza asko dauzkagu, baina beraien irribarreak ikusi edo gureak, ez dira berdinak»

ELIKADURA

«Honera etortzen direnean, bi hilabeteetan denetatik jaten dute eta indarra hartzen dute»

LEHENENGO URTEA

«Lehenengo urtea ikaragarria izan zen; Leitza eta Areson soilik 22 ume etorri ziren»

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alto. *Nor bere burua motibatzearen garrantzia* hitzaldia izango da Lizarbeko ezker aldeko gelan, 17:00etan: Aurretik finkatutako xedeei begira motibazioari eusteko gaitasuna garatzeko helburuarekin burutuko du hitzaldia.

Tolosa. *Etorkizuneko energiak: geure burua petrolioa bukatzen denerako* prestatzen gaiaz ariko dira Antonio Ruiz Elvira Fisika Aplikatuko katedraduna eta Lucila Izquierdo ikertzailea Kultur Etxean 20:00etan. Aurkezlea: Beatriz Martikorena Aldundiko aditua.

Zizurkil. *Belatrix taldearen Erase una vez la opera* antzezlan musikatu izango da 17:00etan Abxulondo kultur etxean, Zizurkilgo V. Antzerki Astearen barruan. Kutxa kultur ekintzen eskutik.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Jon Mikel Garmendia irurarraren pintura abstraktuak ikusgai dira Lanbroa tanberran.

Tolosa. Julio Pardo pintore iruindarraren margolak ikusgai daude Aranburu Jauregian.

Tolosa. Amaia eta Agurtzane Nuñez ahizpa anoetarrek bere koadroak ikusgai jarri dituzte Saikin tabernan. Pastel teknika erabiltzen dute.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Goizuetak. Apeztebea, L.M. Kale Nagusia, 64. 112.

Arribe. Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.

Tolosa. Azpiroz, L. Amaro azuoa, 9. 943 675118.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren erreposoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...

18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotza* (errepikapena).

20:00-21:00. *Irauli uhinak.*

21:00-23:00. *Bide okerretik.*

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Etxean zein kanpoan, gustura

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Aste Santuan etxean geratu direnek ere jai egunak ederki aprobetxatu dituzte eta, zer esanik ez, kanpora joan direnek



PLAZAOLA ▶

Maite Yañez (Ibarra).

Urrutira joateko beharrik ez dago oporraldi atseginak igarotzeko. «Aste Santuan batzuk herrian gelditzen gara, eta inguruko txokoak ezagutzeko oso aukera ona da. Argazki hau Plazaolan dagoen Bizkotx labea erakusten digu. Oso egun polita pasa genuen plazaolako bidetik».

CONIL DE LA FRONTERA ▶

Nerea Aizpurua (Tolosa).

«Argazkia Conil de la Fronteran, Cadizen, egin nuen. Leku zoragarria da hura, hondartzak liluragarriak, jende maitagarria, eta noski levante haizea batzuetan...paradisua», dio Nerea Aizpuruak.



O´ GROVE ▶

Nerea Lizartza (Tolosa).

Nerea tolosarrak ere bidali digu Aste Santuko bere argazkia. «Galizia aldean ibili gara, Rias Baixasen eta argazkia O´ Groven ateratakoa da. Muskuiluak nola emaltzen dituzten ikustera joan ginen barku batean eta beste bati ateratako argazkia da. Ikusten den bezala, eguraldi paregabea zegoen», azaldu digu.



AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzañ Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...